

Bergaran, bi mila eta hemezortzikoko abenduaren 30ean, ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Maria Elena Lete García, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako Udalaren izenean (egoitza Bergarako San Martin plaza, z/g-ean du, eta IFK zenbakia P-2007900-J du).

Beste aldetik, Alfredo Gonzalez Chirlaque, zenbakia duena, zenbakia duena, Bergarako Musika Banda elkartearen lehendakaria, elkartearen izenean (egoitza soziala Bergaran Masterreka kalea 5, 3. Can duena eta IFZ zenbakia G75184853).

Alfredo Gonzalez Chirlaque jaunak zinpean alkate andrearen aurrean aitortu ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debekuko kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta, bi aldeek elkarri aitortzen diote behartzeko gaitasuna eta, hala, honako aurrekari hauek azaltzen dituzte.

AURREKARIAK

Udalbatzak 2017ko azaroaren 15ean egindako bileran erabaki zuen Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Banda elkartearekin sinatuko zen hitzarmena onartzea.

Hitzarmen hori 2017ko azaroaren 16an sinatu zen eta bertan zehazten da, besteak beste, udalak elkarteari emango dion laguntza, diru-laguntza barne.

Zehazki bigarren klausulan Bergarako udalak hartzen dituen konpromisoak jasotzen dira, eta horietako bat honakoa da:

BIGARRENA. - Bergarako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- ...
- Hitzarmen honetan jasotakoa betetzeko udalak kontratatuta duen langileari, udaleko langilea den bitartean, baimena ematea diruz lagundutako ekintzetan bandako zuzendari-lanak egiteko.

Udal langile horrek 2019ko ekainaren 22an jubilatze eskakizuna egin du.

Gauzak horrela eta kontuan izanda une horretan udaleko plantillan plaza hori desagertu egingo dela eta udalak ez duela, beraz, plaza hori kubrituko, eta elkarteak berak zuzendari edota zuzendariordea izatea komeni zaiola ulertu duenez, eginkizun horiek betetzeko gai direnak berak izendatzeko eta horien gastuei aurre egiteko diru-laguntza handitzea eskatu eta udalarekin adostu da, Bergarako udalak guzti hori egokia ikusten baitu.

Beraz, bi aldeek elkarri behartzeko ahalmena aitortu eta honako hau

ADOSTU DUTE

LEHENENGOA.- 2017ko azaroaren 16an sinatutako hitzarmeneko 2. Klausula aldatzea honela utziz:

BIGARRENA. - Bergarako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

Elkarteari lokal bat erabiltzen lagako dio, hirugarren klausulan zehaztutako baldintzetan.



- Elkarteari erabiltzen lagako dizkio II. Eranskinetan zehazten diren udal jabetzak instrumentuak, partiturak, uniformeak eta abar. Lagapen horren baldintzak lagarren klausulan datoz zehaztuta.
- Elkartearen esku jarriko ditu hitzarmen honetako Eranskinetako 1. atalean jaso diren emanaldiak garatu ahal izateko beharrezkoak dituen eta udalarenak diren lokalak eta kokapenak; eta horietan egokitze-lan puntualak egingo ditu (lokalak, aulkiak, argiztapena, eszenatokia eta antzekoak). Era berean, udal lokaletan doan emango diren kontzertuak gertatzeko bertan entsegu orokorrak egin ahal izatea baimendu eta erraztuko zaio, betiere aurrez udal Kultur Arloko arduradunekin koordinatuta.
- Hitzarmen honetan jasotakoa betetzeko, udalak kontratatuta duen langileari, udaleko langilea den bitartean, baimena ematea diruz lagundutako ekintzetan bandako zuzendari-lanak egiteko.
- Urteko diru-laguntza bat emango zaio, 53.620,00 eurokoa. Horietatik, 4.000,00 euro instrumentuak erosi, ordeztu eta mantentzeko; 1.000,00 euro partiturak eskuratzeko eta kontzertuetako esku-programan ateratzeko; eta 2.000,00 jantziatarako.

Diru-laguntza hau kalkulatzeko orduan, 70 kideren banda hartu da kontuan. Gutxiago balira, diru-laguntza proportzioan murriztuko da.

Halaber, zuzendari ordea izendatzen denetik gehienez ere 1.800,00 euro /urteko diru-laguntza ere emango zaio.

Bestalde, Bergarako udalak kontratatuta duen langilea jubilatzen denetik, gainera zuzendari lanetan arituko denaren kontratazio kosteari aurre egiteko, gehienez ere eta behar bezala justifikatuta urteko **36.890,00 euroko beste diru-laguntza bat emango dio.**

Zuzendariaren ordainsarien kontzeptuen artean antzinatasuna ere balegokio, beti ere kargu horretan hiru urte efektiboki betetzen dituenean, horren ordainketarako gehienez ere 630 euro /urteko gehiago diru-laguntza emango da.

Hitzarmen aldaketa honekin onartutako kopuru hauek eguneratuko dira 2020 urtetik eta gehienez ere aurreko urte naturaleko KPlarekin.

Diru-laguntzak arautzen dituzten klausulak bosgarrenetik bederatzigarrenera artekoak dira –biak barne–.

- Egile eta Editoreen Elkartetik (SGAE) sor daitezkeen gastuak bere gain hartuko ditu, betiere hitzarmen honen xede diren eta I. Eranskinetan jasota dauden jardueretarako.
- Lehen eranskinetan programatutako jardueren publizitatearen gestioa eta gastuak bere gain hartzea. Horretarako, I. eranskinetan aipatutako jarduerak Udalaren web orrian eta kultur egitarauan argitaratuko da eta herriko komunikabideetara ere bidaliko da informazioa.

BIGARRENA.- 13. Klausula aldatzea honela utziz:

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta indarrean egongo da sinatzen den egunetik hasi eta 2020ko abenduaren 30era arte.

Eta adostasun-gisa, parte-hartzaileek agiri hau hirukoiztuta sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean, eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

